

Beranduegi

DOINUA:
BIZKORRA EZ NAIZ BAINA BADAUKAT.

Zapirain anaiak XXVII. Bertso-Paper Lehiaketako
sorta irabazlea.



Ane Labaka Mayo
@anepirata

1. *Belaunburuak bihurtu zaizkit familia honen parte zenbat sehaska kanta, bizipen nahiz fikziozko pasarte... Atzo esker hitz izandakoak bihurtzen dira bihar ke, sarri askotan zail da hartzea betebeharrak bitarte norberarentzat bi tarte... hautu izan ez diren ardurek zama handia dakarte; beti besteak zaintzen jardun naiz nitaz ahaztu naizen arte.*
2. *Amona batek ingurukoei zor die mila maitasun doako lana denak ordea ez du nahiko duintasun. Sukalde baten kabitzen bada horrenbeste goxotasun, pazientzi eta ume txikien negar sarkorren oihartzun... "Besteok lagun gaitzazun, jakin nahi nuke astirik eta indarrik ba al daukazun..." galdera egin ez diotenak ezin du ezetz erantzun.*
3. *Nahiz maitasuna uler lezaken bakoitzak mila eratan ezkondu eta mende erdia gero elkarri zelatan haserraldiak ugari eta besarkadak horren bakan behin estimatzen jakin gabea sumatzen dut orain faltan, gu bion arteko talkan mila zatitxo erditu dira bizitzen azken etapan; lehen elkarrekin lokartzen ginen gaur egun ohe banatan.*
4. *Mesanotxeko argazki zaharrak ditu izkina horiak, gu ere berdin horitu gaitu denboraren memoriak gure oheek gau ilunean dirudite hilobiak, non galdu dira garai bateko izarapeko gloriak? Errutinan eroriak nire desio ezkutuenak lapurtu dizkit Ongiak mihiak kontatu ezin zuena gordetzen du klitoriak.*
5. *Bizitzan zehar irentsia dut jakinmin adina listu neukana eta zegokidana onena zela sinistu. Nintzena eta nahi nukeena ezin nituen bereiztu ametsen forma hartu ohi zuten horma arteko zirriztu guztiak ziren murriztu nahiz ta tarteka berriz zerotik hasteko gogoa piztu nire beldurrek bihurtu dute tentazioa arrisku.*
6. *Arrisku gisa ikusi ditut hanka sartzeko aukerak nahigabe hartuz besteek nitaz esperotako jarrerak. Hirurogeita hamar urteko emakume hain onberak ondokoei so ahaztu baitu berez zer nahi zuen berak... Urteen bilakaerak nire barruan zabaldu ditu borrokarako trintxerak orain artean inoiz egiten ausartu ez naizen galderak.*
7. *Amuen forma sarri gordetzen da galdera ikurrean; aldatu nahia orekan eta esperantza beldurrean. Etorkizuna ez, iragana daukat esku ahurrean zartatu dena baserriko lan nahiz baratzeko lurrean guztia ez da urre han... Nekea daukat tatuatuta orain azal zimurrean nire burua ezezagun zait ispiluaren aurrean.*
8. *Ezezaguna ezagutzea niretzako da zilegi, lehenik eta behin guztia argi esango diot Joxeri ondoren, berriz, mahai inguruan seme-alabekin eseri: "Lehertu egin naiz eta banoa, ezin dut horrela segi, sufritu baitut gehiegi..." Maiz aldaketa batek ez dauka zertan izan amildegi berandu izan daiteke baina ea ez den beranduegi.*